



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Arretako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2025-eko Ekaina

ERIZAIN ELKARLANERAKO INDIKAZIOA: GIDA BERRIAK

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

OSASUN SAILAREN SEGURTASUN-OHARRA

- Errezeta elektronikoaren bidez nahitaez preskribatu eta ematea: klonazepam

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

HOBEEKUNTZAK PRESBIDEN

- Osakidetza Intranetean Presbiden eskatu ahala preskribatzen diren medikamentuen zerrenda eguneratu da
- **Interakzioen eguneraketa**

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

- **ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK**

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

- INFAC buletin berria: “BGBKren tratamendu farmakologikoa”
- i-botika: Ke txarrak STOP
- Sendagaiak zentzuz erabiltzeko oharra: “Denosumab: kontuan hartu arriskuak, tratamendua hasi aurretik”
- Euskadiko Txertaketa eta Immunizazioari buruzko III. Jardunaldia
- Infografia berria SEFAPen blogean: “Zer jakin beharko zenuke saiakuntza kliniko batean parte hartu aurretik?”

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

Humanismo Medikoa vs Burokrazia Bloga: “Zergatik da Espainia bentzodiazepinak eta beste psikofarmako batzuk gehien kontsumitzen dituen munduko herrialdea?”

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA - BERREZARPENAK

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

1

ERIZAIN ELKARLANERAKO INDIKAZIOA: GIDA BERRIAK

Preskripzioa behar duten medikamentuen erizain elkarlanerako indikazioa hasi da, Osasun Ministerioak aldeztu aurretik baimendutako protokoloen arabera.

Erizainek, mediku-preskripziorik behar ez duten osasun-produktuen eta medikamentuen indikazio autonomoa egiteaz gain, beste medikamentu batzuk indikatu, erabili eta baimendu ahal izango dituzte. Zehazki, Osakidetza prestatutako gida eta protokoloetan oinarrituta, gernubideetako infekzioekin eta tabakoa uztearekin lotutako esku-hartze batzuei heldu ahal izango diete.

Gernubideetako infekziorik bada, fosfomizina (3 g – zorro 1) edo nitrofurantoina (50 mg - konprimatuak, 5 ml - aho bidezko disoluzioa) indika daiteke; tabakoa erretzeari uzteko bada, berriz, bareniklina (0,5 mg edo 1 mg-ko konprimatuak) edo zitisiniklina (1,5 mg-ko konprimatuak). Informazio gehiago nahi izanez gero, sartu Intranet Korporatiboan:

- [Medikamentuak eta osasun-produktuak indikatzea, erabiltzea eta banatzeko baimena ematea](#)
- [Erizain elkarlanerako indikazioa](#)

Gidaz gain, Presbiden erizain elkarlanerako indikazioari buruzko informazioa dago:

Erizain elkarlanerako indikazioa

Tabakoa uztea	Gernu traktuaren infekzioa
Tabakoa uztea gida	Gernu-traktuaren infekzioa gida
Presbide eta tabakoa uztea gida	Presbide eta gernu-traktuko infekzioaren gida

Presbiden, “Espa.” zutabea “E” bat agertuko da, erizainak medikamentua indikatu duenean. Luzagarria bada, ikur hau izango du:


Preskripzioak. Eskatutako data-tartearen uneren batean aktibo zegoen preskri...					
☐	Egoera	Abok.	Ber./Amaiera	Nota	Espa. Eriz.
☐	✓		2025/05/08	C	E
☐	✓		2025/06/07	A	E

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2 OSASUN SAILAREN SEGURTASUN-OHARRA

Errezeta elektronikoen bidez nahitaez preskribatu eta ematea: klonazepam

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak gogorarazi digu azken hilabeteotan errezetak inprimatzen ari zaizkiela klonazepamamodu elektronikoa jaso beharko luketen erabiltzaile aseguratuei. Gogorarazi behar da errezetak mugakoei soilik inprimatu ahal zaizkiela (ez zaizkie elektronikoki eman behar), eta Presbidek inprimatzea eskatzen duen erabiltzaileen kasuetan:



Ez zaie errezetarik inprimatu behar baldintza horietakoren bat betetzen ez duten erabiltzaileei. Errezetak ez dira baliozkoak farmazia-bulegoetan.

Azkenik, gogoratu eskuz idatzitako klonazepamaren errezetak ez direla inolaz ere baliozkoak, eta kontuan izan legez kanpoko erabilera eta trafikoa oso zabalduta dituen medikamentua dela.

Klonazepam printzipio aktiboa duten medikamentuak emateari eta erabiltzeari dagokionez gerta daitezkeen iruzurrezko jarduerak saihesteko, Osasun Ministerioak [informazio-ohar](#) hau argitaratu zuen.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3

HOBEKUNTZAK PRESBIDEN

Osakidetzako intranetean Presbiden eskatu ahala preskribatzen diren medikamentuen zerrenda eguneratu da.

[Esteka](#) honetatik sar daiteke zerrendara.

Interakzioen eguneraketa

Duela gutxi zenbait hobekuntza egin dira Presbiden, eta tresnan agertzen diren interakzio farmakologikoei eragiten diete. Lehendik zeuden interakzioez gain, Presbiden kargatu dira UptoDaten arabera interakzio kontraindikatuak (X kategoria).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4

ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK

Hauek dira ekaineko berrikuntzak:

2025 ekaina		
	Leuprorelina	Lutrate Depot® hilean 3,75 mg injektagarri. Finantzatutako egokiespen berriak: - Lokalki aurreratua dagoen hormona-mendekotasuna duen prostatako minbiziaren tratamenduan, erradioterapiarekin batera. - Prostatako minbiziaren tratamenduan, arrisku ertain edo altuko pazienteetan, erradioterapiarekin batera. Fitxa teknikorako esteka.

 Indikazioa, finantzaketa edo preskripziorako eta emateko baldintzak zabaltea

2020ko urtariletik aurrerako berrikuntzak biltzen dituen [dokumenturako esteka](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

INFAC buletin berria: “BGBKren tratamendu farmakologikoa”

INFAC buletin honetan BGBKren tratamendu farmakologikoa deskribatzen da, GOLD 2024 gidan eta eguneratutako beste gida eta dokumentu batzuetan oinarrituta. Halaber, gomendioak egin dira tratamenduen egokitzapena hobetzeko.

Dokumentuetarako estekak:

- [Buletina](#)
- [Aurkezpena](#)
- [Asma eta BGBK tratatzeko farmakoen eta inhalagailuen taula](#)

i-botika: Ke txarrak STOP

Herritarrei informazioa emateko i-botika fitxa berria argitaratu da, erretzeari uzteko dauden aukera terapeutikoei buruz. Osasun-profesionalen aholkularitza egokiak helburu hori betetzen lagun dezake.

[Esteka](#) honetan kontsulta daiteke fitxa.

Sendagaiak zentzuz erabiltzeko oharra: “Denosumab: kontuan hartu arriskuak, tratamendua hasi aurretik”

Medikamentuak zentzuz erabiltzeko oharra argitaratu da gai honi buruz: “Denosumab: kontuan hartu arriskuak, tratamendua hasi aurretik”. [Esteka](#) honetan kontsulta daiteke fitxa.

Webgunean dituzue argitaratutako gainerako [oharrak](#) ere.

Euskadiko Txertaketa eta Immunizazioari buruzko III. jardunaldia

Euskadiko Txertaketari buruzko Jardunaldien hirugarren edizioa 2025eko otsailaren 19an egin zen, eta grabatutako jardunaldirako sarbidea gaitu dute honako [esteka](#) honetan.

Infografia berria SEFAPen blogean: Zer jakin beharko zenuke saiakuntza kliniko batean parte hartu aurretik?

Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Elkarteak (SEFAP) infografia berri bat argitaratu du: Zer jakin beharko zenuke saiakuntza kliniko batean parte hartu aurretik?

[Pdf formatu interaktiboa](#)

[Aurkezpen interaktiboaren formatua](#)

Horiek eta SEFAPen beste infografia batzuk ikus daitezke bere [webgunean](#).

Humanismo medikoa vs burokrazia bloga: Zergatik da Espainia bentzodiazepinak eta beste psikofarmako batzuk gehien kontsumitzen dituen munduko herrialdea?

Blog horretan berriki egindako [sarrera](#) batean, autoreak gogoeta egiten du munduko zoritxarreko errekor horri buruz, eta medikuen ardura nabarmentzen du, bai preskripzioen hasieran pazienteei gerta dakizkiekeen albo-ondorioei (epe labur, ertain eta luzean) buruzko informazio egokia emateari dagokionez, bai beharrezkoa eta zaila den tratamenduen depreskripzioari dagokionez.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6 MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA - BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- Azido Ursodeoxikolikoa, klomipramina, oktreotida, tobramizina ukendua, kolesebelama

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Atomoxetina, tapentadola, harrikatz-brea, propafenona, fluorouraziloa/az. salizilikoa

PRESBIDEn “Hornidura-gabezia” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornidura-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- Presbiden: [Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuen hornidura arazoak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABAKo ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetzaren intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez